



Elur bustia

PELLO LIZARRALDE

n a r r a t i b a

erejin

ELUR BUSTIA

Narratiba, 95

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko maiatzean

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azaleko argazkia:

José Ignacio Agorreta

© Pello Lizarralde

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-127-1

L. G.: SS-614/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Pello Lizarralde

ELUR BUSTIA



Zakurra industrialdeko errepidea zeharkatzen hasi zen eguzkipean. Azken pabiloiaren pareko zabortegitik jaitsia zen, eta asfaltoa zapaldu eta gero burua makur, mingaina kanpoan jarraitu zuen, kemen apurrak hurrengo urratsean jarrita. Handik metro gutxira gizon bat zeukan begira, baina arratsaldeko eguzki zuriaren zamak hari erreparatzea eragotzi zion.

Errepide bazterrean aparkatutako trailer baten gerizpean zegoen gizona, besaburua kabinan, begiak animalia ibili nagian. Bere aho erdi irekitik ateratzen zen hatsa inguruko airea bezain beroa eta isila zen. Gizonari argiro heldu zitzaion zakurraren azazkalek bere bidean egiten zuten hotsa.

Bat-bateko azkura sentitu zuen eskuin begian eta bezazalak senez biltzearekin batera kopetatik eta lokietatik heldu zitzaion izerdia idortu zuen esku gainak erabiliz. Jarraian bi hatz eramán zituen bizkarrera izerdiak atxikia

zion atorra zatia larrutik bereizteko, eta azkenik paperezko musuzapi zimurtu batez txukundu zituen lepoa eta aurpegia.

Hazpegiak uzkurto zitzaizkion mingaina ahoan mugitzearekin. Hala bildu zuen listu bolatxo ahotik jaurtitakoan errepideko hauts gainean itzulikatu zen eguzkiaren eremu kiskalian gelditu arte.

Jarrera aldatu gabe jiratu zuen gizonak burua. Bere atzean ez zegoen lehendik ikusia ez zuenik. Hirurehun bat metro zeuden hurrengo kale elkarguneraino eta hamabi bat pabiloi izanen ziren eguzkipeko aire dardaratian, guztiak itxirik. Gizonak sei kamioi kontatu zituen zuzenaren bi aldeetan. Haietako baten kromatuak dirdai itsugarri bat igorri zion eta burua lehengora itzultzera behartu zuen.

Zakurrak beste aldeko espaloia iritsitakoan, gizonak bi soilgune gorri antzeman zituen ordura arte hari ikusi ezin izan zion bizkar aldean. Animaliak zuzenean pabiloiak babesten zituen hesiaren itzal zerrenda bilatu zuen. Luzea eta trinkoa zen porlanezko oinarriak proiektatzen zuena, eguzki orban zabalez tartekatua metalezko harena. Zakurrak usnan egiteko indarrrik gabe jarraitu zuen hesitik zentimetro gutxira. Bi txatar meta zeuden azken pabiloiaren hesiaren bestaldean.

Hesiaren bukaeratik haratago ez zegoen ez itzalik ez asfatorik. Hogeiren bat metroan brea zuten hedatua lurrezko bidean sartu aurreko zatia arintzearren. Handik aurrera bi galsoro horitu ageri ziren alde banatan, biak aspaldi segaz joak; bien artean, alporeak lausoturik, muino

apal bat zegoen, eta pinudi bakandu batek inguratzen zuen haren hegala. Udaminekoa ez izanagatik, gizonari garbi heldu zitzaion soroetako intsektuen zirta.

Itzaletik atera gabe, istant batez zati breaztatuaren parean gelditu zen zakurra, nora jo ez zekiela. Azkenean bidera jaistea deliberatu zuen, eta breazko bidea lehertzen zuten belar idor pizarrei usain egiteari ekin zion batetik bestera eta oso metro gutxiko tartean. Bat-batean jauzi egin zuen, intzirika. Gizona, ustekabe keinua eginda pixka bat tentetu zen.

Ihesari eman aurretik beste harrikada batek atzeko hanka batean jo zuen zakurra. Gizonak ezker-eskuin mugitu zuen burua harriaren nondik norakoa aurkitzearren. Bi haurrek, harri bana eskuetan, hesi kantoitik bidera egitean, gizonak zango bat aurrerratu eta esku bat jaso zuen. Haurrek huts egin zuten, eta zakurra itsumustuan igo zen obretakoek utzitako zabortegean gora. Hondakin amilduek hots txikiak eragin zituzten zakurra lekutu aurretik.

Gizonak urratu zuen ondorengo isilaldi laburra:

–Eh! Zer ari zarete? Geldi, gero!

Haurrek une batez begiratu zioten gizonari; atzerak urrats batzuk eginda hesiaren atzean ezkutatu ziren. Gizonak pixka batean behatu zuen haurren gordeleku alde-
ra; gero, esku ahurra erabiliz lehortu zuen kopeta. Besagaina berriz kabinan bermatu bezain laster, haurrak ziztuan atera ziren errepidera; gizonak pare bat urrats egin zituen kamioiaren muturreraino hurreratzeko. Bide erdian, kamioitik hogeit bat metrora gelditu ziren haurrak.

Besoak jasotzeaz batera, oihu labur eta ulertezinak egin zituzten. Gizonak baztertzera egin zuen haiek harriak botatzeko keinua egitean. Harriak indarrrik gabe eta jauzi tikiak eginez gelditu ziren kabinatik metro gutxira.

Haurren atzetik joateko keinua egin eta lau oinkada ematea aski izan zitzaion gizonari haiek hanka egiten ikusteko. Zalantzaldi labur baten ondoren, hurrek zakurrak egindako bide bera hartu zuten.

Trailerraren gerizpera itzulita, gizonak atzera kope-ta lehortu behar izan zuen. Euli batek jira pare bat egin zituen firrindan gizonaren buruaren inguruan. Azkenik lokian pausatu zitzaion, eta gizonak eskuaz uxatu behar izan zuen.

Lurrean, gurpilaren ondoan utzia zuen motxila jasotzeko makurtu zen. Esku ukaldi batzuk jo zizkion motxilari hautsa kentzeko. Motxilaren bizkarrak plastikozko leihatila bat zuen eta paper bat zegoen haren barnean. Gizonaren izen-abizenak ageri ziren, boligrafoz idatzita, eta itxura batean, aspaldi. Izena garbi samar irakur zitekeen: Ramiro. Abizen bakarra litekeenean lehenengo bi hizkiak eta azkena baino ez: *Vi* eta *a*.

Ramirok txano biseradun zuri bat sartu zuen buruan. Txanoak freskagarri baten propaganda zeraman biseran eta alboetan. Sorbaldak jaso eta astindu bat egin zion motxilari bizkarrean egoki jartzeko. Lurrean proiektatzen hasia zen trailerraren kabinaren silueta zati bat. Itzalaren ertzak eguzkiaren amildegia iragartzen zuen.

Pabiloien teilatu-hegalen itzalak gorabeheratsuak eta me-harrak ziren artean, eta Ramiro ia aurre aldeko hormak ukitzen zituela zihoan zuzen amaigabeen barrena. Legar edo hareta pixka bat zapaltzen zuenetan, horma haiek edota pabiloi itxi eta erdi hutsen barrenak pauso hotsen oihartzuna ekartzen zioten. Orduan, bat-batean gelditzen zen, erne, ozenegia zitzaion bere pausoena estal zezakeen beste soinuren bat atzemateko.

Arratsaldeko aire estutuak, ordea, apenas ekarri zion ezer; batzuetan landetako marmar urruna, besteetan, gehienez ere, beroak teilatuetan eta hormetan eragindako krakateko arinen bat edota zakur zaindariren baten kateak pabiloien zorua urratzean sortutako soinua.

Bidegurutze batean egin zuen geldialdi haietako batean Ramirok kaleak markatzeko zutoin garaietan paratuak ziren letra beltz handiei erreparatu zien. Argi lausotak zuria eta hori zikina zituen bere baitan. Ramirok behin eta berriz irakurri zituen letrak; haien soinua ahopean ebakitzean ezpaineak dardara egin zioten, eta burua batera eta bestera mugitu zuen irtenbide jakin baten bila ariko balitz bezala.

Begiratu apaltzean ohartu zen ordura arteko bidea usain segida bat markatua zuela, begiak orain lurrean orain zuzenaren buruan, pabiloien aurre aldean idatzitako kasurik egin gabe ibilia zela. Koloretako idazkun haiek irakurri gabe ere, erraz lortu zuen pabiloiek gordezten zutena igartzea. Beroak biziagotuta garbi heldu zitzaizkion motorren koipearen usaina, pintura eta berniz

eman berrienak, erregaiena eta, beste edozein baino nabarmenago, epel eta gozo, bilgarrien kartoiena.

Ramirori usain haien guztien hondarrek bete zioten gogo bat-batean gelditu zenean. Urrun samar egonagatik kartelak argia zirudien. Hala ere, seguruago egotearren Ramirok eguzkitara jo zuen ikuspuntu hobea izanzen zuelakoan, eta hala lehentxeago begitandu zitzaiona berretsi zuen. Ostatua zen, inondik ere, eta, ahalegin txiki bat eginenez gero, kartelego garagardoaren markari ere igarri ziezaiokeela esan zion bere buruari. Itzalera itzuli aurretik txanoaren bisera ukitu zuen. Motxila egokitu eta, ostatua helburu, abian jarri zen.

D eta E kale artekora iritsita, kantoian jarri zen espaloia beste aldera begira. Pixka batean jardun zuen ostatuko sarrera aztertzen, baina handik ez zitekeen jakin irekita zegoen ala ez, eguzkiak bete-betean jotzen baitzuen kristalean eta barrenekoa hautematea galarazten zion.

Errepidea gurutzatzea erabaki zuen. Abiatu eta bere burua kristalean islatuta ikustearekin, pixka bat apaldu zuen burua eta halaxe jarraitu zuen ostatuaren atariraino.

Aurreko kale kantoian zuen sarrera eta bi mahai altu zeuden atearen alde banatan, eta bi hautsontzi mahai bakoitzean. Hautsontziak puru eta zigarro puntez mukuru beteta zeuden, eta kanpoan egonagatik, hango airean zebiltzan artean bazkalondoko fariasen eta zigarroen ke hondarrak.

Ostatuko ate gainean estalki txiki bat egina zuten, etxe zahar baten teilatuaren tankerakoa. Ramiro, txanoa

kendu eta ile izerditua txukuntzen ahalegindu zen ostatuan sartu aurretik. Bigarren oinak barrena zapaldu gabe zuen ahotsa entzun zuenean:

–Itxi egin behar dut!

Ramirok ostatuko atearen danbatekoa entzun zuen bere atzean. Aire egokituak zafratu zuen goitik behera eta hotzikara eragin zion. Ostatuan ez zegoen bezero bat bera ere eta aulkiak mahaien gainean jarrita zeuden.

Ramirok ezin zuen ongi ikusi mintzatu zitzaionaren aurpegia. Emakume gaztea zen, eta mostradorearen bestaldean kamara edariz betetzen ari zenez, behin eta berriz makurtzen zen sartu berriari kasurik egin gabe.

–Baso bat ur. Ez dut besterik nahi –esan zion Ramirok ate ondotik mugitu gabe eta eskua pixka bat alxtutzen zuen bitartean.

Emakumeak begiratu laburra egin ondoren baso bat bete ur utzi zion mostradore gainean. Ramiro astiro inguratu zen eta bi hurrupa eginez hustu zuen basoa. Bukatutakoan ezin izan zuen hasperen luze bat ito. Emakume-ari irribarre murriz bat eskapatu zitzaion. Beste bat? galdetu zion zerbitzariak, eta Ramirok baiezko keinu arin bat egin zion buruaz.

–Iparraldean eta sasoi honetan ez nuen asko uste horrelako giroa izan zitekeenik –esan zuen Ramirok zerbitzaria betetzen ari zen basoari begirik kendu gabe—. Oker ez banago etzi urriaren lehenengoa dugu...

–Ez harritu; ez urtero, baina badaki horrelakoak egiten –erantzun zion emakumeak Ramirori begi ertzez

begiratzen ziola hark bigarren basokada husten zuen bitartean.

Ramiro mostradore atzeko apalategiko botilei begira jarri zen. Barreneko freskurak arindu arren, frijitu usainaren gainetik likoreena gailentzen zen airean. Ramirok tua irentsi zuen. Emakumeak utzia zion kamara betetzeari eta trapu bustia hartuta mostradorea garbitzen hasia zen.

–Giro honek jendea izutu duela ematen du... –esan zuen Ramirok arnasa hartu eta hatz puntak mostradore ertz hotzean jartzen zituen bitartean–. Hemen ez duzu bezerorik, baina hor kanpoan ere...

–Zer nahi duzu? Horrelakoak izaten dira ostiral arratsaldeak –erantzun zion emakumeak garbitzeari utzi gabe eta ahotsa apur bat altxatuz.

Trapua pasatu ahala emakumea Ramirorengandik urruntzen joan zen eta, ustez hark ez zuela beste ezer gaineratuko, emakumeak bi eskuak mostradorean jarrita hitz egin zion:

–Eta lanaz ari bazara, gauza bat esanen dizut: heldu den astelehenean ere haietako asko itxita egonen dira.

Bukatzeko, eta berriz lanari ekinda, emakumeak keinu bat egin zuen buruaz eta hitz batzuk jaulki zituen aho-pean. “... horrela kontuak ...” edo antzeko zerbait jaso ahal izan zuen Ramirok mostradoretik aldendu eta pauso bat atzera egitean. Mila esker eta hurren arte, esan zion agur gisa zerbitzariari.

Atea itxitakoan ez zen estalpe txikitik mugitu. Hautsontzietako zigarro puntei begira egon zen zenbait

segundoz. Lepoa bihurtu zuen ostatu barrena begiratzeko hautsontziko zigarrokin luzeena hautatu baino lehen.

Hurrengo pabiloiko teilatuaren hegalperaino joanda bizkarra horman bermatu zuen zigarroa pizteko. Hiru atxiki luze egin zizkion ia ahokoa erre arte. Biriketatik atera zitzaion kea zerua eta lurra berdintzen zituen argian desegin zen.

Belar gaiztoek mugarriztatzen zituzten bi orube hutsak eta espaloi zartatuak. Ramirori trafikoaren zurrumuruak erakutsi zion nontsu behar zuen industrialdearen mugak, eta harantz alderatu zen, belarriek jasotzen zutenari jarraikiz.

Orubeetako belar haietatik hain tarte txikira zebilenez, matxinsalto ugari uxatu zuen eta jauzi haiek su apal baten txinparten soinua gogorarazi zioten.

Aurrera egin ahala gero eta pabiloi hondatuagoak topatu zituen. Inguruko beste pare batek bezala, haietako baten kristalak pintura zuriz erdi estaliak zeuden. Ramirok kristala ukitu arte hurbildu zuen burua, eta eskuak erabili behar izan zituen begi ertzetatik zetorkion argitik babesteko. Barrenean sabaitik eroritako hondar zuriak eta kartoi zatiak ageri ziren. Burua berriz jasotzean Ramirok bi kamera begiztatu zituen hurrengo kantoian. Orduan, geldialdirik egin gabe jo zuen aurrera.

Minutu pare baten buruan inguratua zen industrialdea eta aldiriko autobia bereizten zituen hesi metalikora. Bi eskuak eta aurpegia sarearen hutsuneetan, bi norabideetako trafikoko biziari beha egon zen. Errepidearen beste aldean ezponda pikoak beheko ibairaino alderatze-ko edozein ahalegin zapuzten zuen.

Ibai zulutik goratzen ziren makalen hosto arteak hiriko auzo berrien puska koloretsuak irazten zituen. Ez zegoen, aldiz, hirigunea eta muinoko alde zaharra ikustea eragozten zuen ezer. Gandu zuri mehearen atzean, urrun baina gailen, dozena erdi bat elizaren dorre ilunak zeuden aldatsean eta hegian.

Ramirok burua hesitik aldendu zuen oinezkoentzako gainetik pasabidea bilatzeko. Ezkerrean zegoen, eta bostehunen bat metro izanen zirela taxutu zuen. Pabiloien atzeko aldeak eta hesiak mugatzen zuten eremutik jarraituz hurbildu zen, zabor edukiontzien eta makina hori isil- len ondotik. Hormetako pintaketak argi irakur zitezkeen artean. Grebarako deiak ziren gehienak, baina pinturaren margulari erreparatuz gero agerikoa zen urteak zituztela.

Pasabideraino iritsitakoan hirian sartu arteko tartea neurtzen saiatu zen. Metalezko eskailera dardaratiak igo eta pasabide gainetik begietsi zuen industrialdea.

Hegoaldera zihoazen errepideetatik dirdai motelak igortzen zituzten autoek. Aparte, ordeka horituaren erdian, garabi oihan bakan bat nabarmentzen zen.

Ramirok eskailera jaitsi zituen eta hirirako pasabidea atzean utzita, industrialdeko kale hutsetara itzuli zen.

Lehenengo kale gurutzean kartel ugari topatu zuen; lau norabideetara eginak zeuden eta guztiek inguruko industriak iragartzen zituzten. Batek berak ere ez non zegoen irteera.

Loaren putzutik irtetea ilun betea topatu zuen. Ramiro ahoz gora zegoen etzanda, eskuak lo zakutik kanpora. Segundo gutxi behar izan zituen non zegoen jakiteko, eta zainak esaten bazion ere zergatikoa inguruan zeukala, ezinezkoa zitzaion zer itzarria zuen asmatzea.

Nekearen eta logalearen astunak pentsarazi zion denbora gutxi emana zuela lotan. Etxabea hormarik ez zegoela baliatuz, burua apur bat jaso zuen sabaiak itzultzen zion beltza saihestu eta argi aztarnaren bat bilatzeko. Bazekien ilargia izan balitz izpiren bat ekarriko ziola bera zegoen tokiraino; ez zuen lehenbizikoan etsi, ordea, eta konbentziturik zerua ez zegoela erabat estalita, burua pixka bat behartuz urratu zuri batzuk aurkitu zituen ilunpean.

Atzera zoruan bermatzean ziztada labur bat sentitu zuen bizkarrean. Harritu egin zen, etzan aurretik haztamuka ibilia baitzen zoruan adreilu hondarrak, iltzeak eta bestelakoak baztertzen, eta itxura batean erabat garbi zegoen hartarako aukeratua zuen tokia. Zoru koskez

eta laztasunez josiak eragina izanen zela atera zuen Ramirok, eta zentimetro batzuk mugitu zen jarrera egokitzeke.

Begiak bildu zituen orduan, eta egurats umelak porlanaren eta zuraje jarri berriaren usaina ekarri zion. Oso arina izanagatik, airean gasolina erre berriaren hondar bat zegoen. Ez zebilen haize izpirik ere, baina eraikinaren hezurdura soilak, oso tarteka, hots ia hautemanezinak hedatzen zituen, eta une horietan Ramiroren begirada sabaia zeharkatzen ahalegintzen zen gainean zituen solairuen zama eta hats ezkutua neurtu nahi balitu bezala.

Ez zuen ahoz gora lo egiteko ohiturarik, eta jarrera hartan jarraitzea erabaki zuen beilari hobeki eusteko. Alabaina, isiltasunak arnasa bere onera ekartzen lagundu zion eta Ramiroren betazalek dardara txikiak egin zituzten. Orduan ahotsak heldu zitzaizkion atzetik, eta bat-batean agondu zen.

Ahoa erdi irekita, belarriak erne, bihotza taupaka egon zen ahotsak berriz entzun arte. Bi gizon ziren solasean ari zirenak eta handik gutxira hirugarrena hasi zen aurreko bien arteko isiluneetan zer edo zer txertatzen. Lasai ari ziren, ahotsetan ez zegoen ez urduritasunik ez xuxurlarik, nahiz eta Ramirok jaso ahal izan zituen esaldietan hasierako bi ahotsek aginduak eman elkarri. Laster hasi ziren hotsak, eta Ramiro ohartu zen antzik eman ezin zion zerbaiti bultzaka ari zirela eta herrestan zeramatela.

Bazekien etxabea pilatua zen materiala zela-eta ez zegoela gizonen ikusbegian egoteko arriskurik, eta, haatik,

lo-zakutik atera eta zutitu egin zen. Lepo inguruan paratu zuen lo-zakua eta haren gainean motxila; zapatillak jasoetzeko makurtu eta itsumandoka jo zuen etzan aurretik metro gutxira ikusia zuen eskailerara.

Eskailera ia arranpa hutsa zen, eta beheko aldea ukitutakoan arranparen erdi-erdian zurez eginak zituzten maila txikiak bilatu zituen Ramirok. Jakinik kanpoko hostek berak sortua estaliko zutela, eskuak eta oinak erabiliz eta pausoa mantso botaz ekin zion igotzeari.

Lehenengo solairua iritsi orduko betoi bloke pila bat ukitu eta ertz babesgabera hurbildu zen. Furgoneta zuri handi bat begiztatu zuen azpian. Ibilgailu barreneko argi margula zen inguruko bakarra, eta hari esker lau itzal bereizi ahal izan zituen haren atzean. Ohol zabal bat muntatua zuten furgonetaren atzeko aldean eta Ramirori makina masatzailea edo antzeko zerbait iruditu zitzaiona sartzeko zorian zeuden.

Makina furgonetan sartu ondoren atzeko atea itxi eta presatu gabe mugitu ziren. Haietako batek zigarro bat piztu zuen; beste batek kable bildua atera zuen etxabeko ilunpetik. Uztak hor, esan zion beste batek eta hark agindua onartu eta bazter batean bota zuen.

Lau gizonetako bi Ramiroren hizkuntza berean mintzatzen ziren; beste biek, tarteka, urruneko hizkuntza batean ziharduten euren artean. Ramirori ezinezkoa zitzaion ezer esatea hitz haien jatorriaz, baina aste pare bat lehenago mahastietan lan bila zebilela langile batzuei entzundakoak gogorarazi zizkion.